

EPAILLA

(Karel Toman)

Goistar, gaur osiñeko pokale inguruan zozoa txis-
[tuka:

Udaberria dator! Udaberria dator!

Eta nik baratzaldeko leioa iriki nuanean,
pipillak bere orritxoak zabaldurik diñue:

Udaberria dator! Udaberria dator!

Liliak urduri eta udaretegiak itxaroten:

Udaberria dator! Udaberria dator!

Zure mototsak printzaz dizdira berriekin
eta erran ots berri bat entzuten dut zure irrian:

Udaberria dator! Udaberria dator!

Jauna,

Berritzaillea, Zarberritzaillea,
pentsa zuzu biotzak daudela elurpean.

Otsalar'ek euskeratuta

EZKUTUKIA

(Amado Nervo)

Zure begi urdiñetan
ezkutuki sakon bat da.

Ta, zu ikustean, Andra,
itaun bat nire onetan.

Zein ezkutuki? Zein itaun?

Ez dot ezer esango nik.

Zeu bere zagoz ixillik.

Ta biok egon jakitun...

Esan dagigun batean,

ori atsegin ha'yatzu.

Ezpan urduriok batu...

Iñork ez aitzeko eran.

Dirauket